

EUSKARAREN EGUNA ABENDUAREN

3an

Aurten ez da Euskaraldia egingo. Antolatzaileek esan dutenez aurrerantzean udaberrian egingo da, bi urterik behin, Korrika ez dagoenean eta honekin txandakatu.

Beraz, aurten eta aurrerantzean Euskararen Eguna betiko formatuan egingo da, gure hizkuntza bereziki erabiliz eta gogoan hartuz. Aurten igandean jausiko denez, ekitaldi asko abenduaren 1ean egingo dira. Gogoratu behar dugu Euskararen Eguna Eusko Ikaskuntzak sortu zuela eta, antza, datorren urtean 75. Urteurrena ospatuko denez, zerbait oso berezia prestatzen hasi dira.

ELKARGOekin lehiaketa Euskara idatziaren historia

Euskaraz noiz eta nola idatzi den ezagutzeko lehiaketa txiki bat dakarkizu hemen, Euskararen Eguna ospatzeko.

Galdera gehien asmatzen dutenen artean Xiberuko Ikastolen aldeko bi saski zozketatuko dira.

Galderak zuzen erantzuteko **internet erabili** daiteke lehiaketa honetan.

Galderak erantzuteko epea abenduaren 10an amaituko da.

Aurrera!



<https://forms.gle/gLAFbG2xaMkaf4hx9>

<https://forms.gle/J1FGkuF5V6BtwjKe7>

SARE SOZIALAK EUSKARAZ

Prestakuntza pilula berria daukagu! Pilula honek laguntzen digu gure Elkargoko sare sozialak kudeatzen. Zer dira sare sozialak? Zertarako balio dute?

Enpresek sare sozialetan duten euskararen agerpena egokia izan dadin, alderdi asko hartu behar dira kontuan, adibidez, kontuak, mezu elikatzailea, gure profilaren sarrera...

Horretaz gain, pilula honetan sareetan aurki dezakegun terminologiaren adibideak dauzkagu, oso baliagarriak izan daitezkenak.

[https://iberba.eus/orriestatikoak/file/14-Sare sozialak euskaraz.pptx](https://iberba.eus/orriestatikoak/file/14-Sare%20sozialak%20euskaraz.pptx)

REDES SOCIALES EN EUSKERA

¡Tenemos una nueva píldora informativa! Esta píldora nos ayudará a gestionar las redes sociales de nuestro Colegio. ¿Qué son las redes sociales? ¿Para qué sirven?

Para que la presencia del euskera en las redes sociales sea adecuada, hay que tener en cuenta muchos aspectos, por ejemplo, las cuentas, el/la Community Manager, la introducción de nuestro perfil...

Además, en esta píldora tenemos ejemplos de la terminología que podemos encontrar en las redes.

[https://iberba.eus/orriestatikoak/file/14-Redes sociales.pptx](https://iberba.eus/orriestatikoak/file/14-Redes%20sociales.pptx)